



12 hilabeterekin, 5 gaixotasunetatik babestuko duten **hiru txerto** jarriko zaizkio bisita berean:

- Elgorriaren, Errubeolaren eta Parotiditisaren aurkako txerto konbinatua.
- C Meningokokoaren aurkako txertoa.
- Hamahiru Pneumokoko-motaren aurkako txertoa**.



Gaixotasunen eta txertoen ondorioen alderaketa

Gaixotasuna	Gaixotasunaren ondorioak	Txertoaren eraginkortasuna*	Ondorio kaltegarriak
Elgorria	Sukarra, errinitisa, estula eta exantema. Bronkopneumonia eta erdi belarriko otitisa (%10). Entzefalitis (1.000 kasuko 1). (%15 heriotza eta %25 ondoren neurologikoak). Ez hain ohikoa: Panentzefalitis esklerosatzaile subakutua. Hilgarritasuna %0,05.	%98,1-98,9	Gorritasuna injekzioaren eremuan, sukarra >37,5°C (≥%10). Goiko aire-bideetako infekzioa, azaleko erupzioa, mina eta hantura injekzioaren lekuan (%1-9).
Errubeola	Sukarra, exantema, limfadenopatiak, artralgiak. Arrisku handiago: errubeola haurdunaldiaren lehen hiru hilabeteetan pasatzen duten emakumeak. Sortzetiko errubeola-sindromea hardunengan (%65-85) fetuaren malformazioak.	%90,6-100	
Parotiditisa	Sukarra, listu-guruin bat edo bat baino gehiagoren hantura (parotida). Orkitisa gizonengan (%20-30). Obarioen hantura emakumeengan (%5). Gutxi batzuetan antzutasuna. Gortasuna (100.000 kasuko %0,5-5). Inoz edo behin entzefalitis.	%94,4-99,3	
Gaixotasun meningokozikoa C	Sukarra, buruko mina, goragalea, okadak. Sepsia, meningitisa, heriotza (kasuen %10-15).	%93-99	Mina, gogortasuna, gorritasuna injekzioaren eremuan. Sukarra, negarra, suminkortasuna, gose-galera (%10).
Gaixotasun pneumokozikoa	Pneumonia, meningitisa, heriotza (meningitis kasuen %30), otitisa. ** 1, 3, 4, 5, 6A, 6B, 7F, 9V, 14, 18C, 19A, 19F, 23F serotipoak	%98	

* Txerto guztiak, antigorputzen maila azken dositik hilabetera.



CALENDARIO VACUNAL INFANTIL DE EUSKADI 2016



Sarampión

Rubéola

Parotiditis

Meningococo C

Neumococo conjugada